

Association Bizi!
22 rue des cordeliers
64 100 Bayonne

A l'attention de M. le Maire
Mairie - Arcangues
175 Herriko Bidea – 64200 Arcangues, France

M. le Maire,

Nous revenons vers vous concernant notre demande de transmission des informations sur le bilan écologique de la commune d'Arcangues au cours de ce mandat.

Arcangues est la seule commune de plus de 3500 habitant·es à n'avoir donné aucune suite aux demandes de Bizi! pour la réalisation du bilan écologique des communes du Pays Basque, publié au mois de septembre 2025. Ces informations auraient pourtant permis de tirer le bilan écologique du mandat et d'informer les citoyen·nes sur les réalisations qui ont été accomplies en leur nom.

Depuis le mois de janvier 2025, nous avons formulé à maintes reprises nos demandes d'informations, sans plus de succès qu'à l'occasion de nos précédents rapports en 2021 et en 2023. Certaines informations demandées étaient pourtant des informations relatives à l'environnement que la commune est légalement tenue de communiquer.

Suite à notre saisine, la Commission d'accès aux documents administratifs (Cada) a émis un avis favorable à la communication de plusieurs indicateurs réclamés par Bizi!, qui l'avait saisie suite à l'absence répétée de réponse d'Arcangues. La Cada rappelle dans son avis ci-joint *“qu'une information environnementale, lorsqu'elle se rapporte à une personne morale, est non seulement communicable à l'intéressée mais aussi à toute autre personne qui en ferait la demande”*.

Nous réitérons par conséquent notre demande de transmission des informations suivantes, sur lesquelles la Cada s'est prononcée favorablement, pour les années 2019 et 2024 (2023 si les données 2024 ne sont pas encore disponibles pour l'année 2024) :

- la consommation d'énergie du patrimoine et des équipements publics,
- la production et la consommation annuelles d'énergies renouvelables du patrimoine de la collectivité,
- la part annuelle de produits durables et de qualité et issus de l'agriculture biologique pour la restauration collective communale.

Nous espérons qu'une plus grande transparence sera de mise à l'avenir, dans l'intérêt de tous les Arcanguais et dans le sens d'une plus grande ambition démocratique.

L'association Bizi!

Bizi! elkarte
Cordeliers-en karrikako 22.
64 100 Baiona

Auzapez Jauna
Herriko Etxea - Arrangoitze
175 Herriko Bidea – 64200 Arrangoitze

Auzapez Jauna,

Zurekin harremanetan sartzen gira berriz, Arrangoitzeko herriaren kargualdi honetako bilan ekologikoari buruzko informazioen eskuratzeko xedearekin.

Arrangoitze da Ipar Euskal Herriko 3500 biztanletik gorako herri bakarra Biziri, Ipar Euskal Herriko herrien bilan ekologikoa egiteko, ingurumenari loturiko informazioa ematea errefusatu duena. Alta, informazio horiek parada emanen zuten bilan ekologikoaren ahalbidetzea eta herritarrak informatzea beren izenean gauzatuak izan ziren neurrietaz.

2025eko urtarriletik hona, informazio eskaerak behin eta berriz aurkeztu dizkizuegu, baina ez dugu orain arteko txostenetan (2021ekoan eta 2023koan) baino arrakasta handiagorik ukan. Galdera horietako batzu, gainera, ingurumenarekiko informazioa ziren, eta legeak obligatzen du Herriko Etxea horien komunikatzea.

Gure eskaeraren ondotik, Administrazio-dokumentuetarako Sarbidea segurtatzen duen Batzordeak iritzi baikorra eman du Bizik galdegin zituen adierazle batzuen komunikazioari buruz. Arrangoitzek ez zuenez erantzunik ematen, Bizik Cadara jo zuen. Cadarena den iritziak gogorarazten du *“ingurumen-informazioa pertsona juridiko bati dagokionean, interesdunari ez ezik informazioa eskatzen duen edozein pertsonari ere eman behar zaiola”*

Hori dela eta, berriz ere hel arazten dizugu Cadaren oniritzia ukan duen galdea, hots, honako informazio hauek bidaltzea 2019 eta 2024 urteetarako (2024ko datuak ez badira oraindik eskuragarri 2023koak):

- ondare eta ekipamendu publikoen energia-kontsumoa,
- kolektibitatearen ondarearen energia berriztagarrien urteko ekoizpena eta kontsumoa,
- Herriko Etxeak kudeatzen duen jantoki kolektiboan, kalitatezkoak, laborantza biologikotik datozen eta iraunkorrak diren produktuen ehunekoa

Etorkizunean gardentasun handiagoa segurtatuko delakoan gaude, Arrangoitzeko biztanle guzien onerako bai eta anbizio demokratiko handiagorekin alde.

Bizi! elkarte